

EBAZPENA, 2020ko apirilaren 3koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, Lan hidraulikoen teknikari lanpostua betetzeko prozesuaren Kalifikazio-epaimahaiko kideak izendatzen dituen.

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2020ko martxoaren 4eko Ebazpenaren bidez, Uraren Euskal Agentzian zenbait lanpostu behin betiko betetzeko eta lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuari buruzko Jabari Publikoa kudeatzeko teknikari rgitaratu zen 2020ko martxoaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA 50. zk.). Argitara emandako lanpostu horien artean dago Uraren Euskal Agentziaren Lan hidraulikoen teknikari lanpostua.

Uraren Euskal Agentziako Lan hidraulikoen teknikari lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarrien seigarren oinarrian zehaztutakoari jarraituz, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak izendatutako epaimahai batek ebaluatuko du prozesua.

Horiek guztiak horrela,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Uraren Euskal Agentziaren Plangintza eta Lanen Zuzendaritzako Lan hidraulikoen teknikaria hautatzeko prozesuko Kalifikazio-epaimahaiko kideen izendapena egitea.

	Titularra	Ordezkoa
Presidentea	Aitziber Urquijo Luengo (Uraren Euskal Agentzia)	Christian Stocker (Uraren Euskal Agentzia)
Mahaikidea	Eduardo Sancho Iztueta (Uraren Euskal Agentzia)	Luis Miguel Martinez De Diego (Uraren Euskal Agentzia)
Idazkaria	María López de Heredia (Uraren Euskal Agentzia)	M ^a Teresa Mena Aguilar (Uraren Euskal Agentzia)

Bigarrena.- Ebazpen hau Uraren Euskal Agentziaren web-orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) eta CRH consultores kanpoko aholkularitza-entresaren web-orrian (www.crhconsultores.com) argitaratzea.

Gasteiz, 2020ko apirilaren 3a.

Ernesto Martinez de Cabredo Arrieta
Zuzendari nagusia
Uraren Euskal Agentzia